

**PUPUAN TRAPUA**  
**XABIER OLASO**  
(Hautatutako hainbat poesia)

***Zeruertza***

*Zeruertza ikutu nahi zuen  
Marinelak;  
Han zegoen, ez oso urruti,  
Soka luzea bailitzan, begien bistan,  
Itsasoaz bestaldean.*

*Belauntzi ttipian egin zituen  
Ehun gau  
Eta ehun egun.*

*Itsasoaz bestaldera heltzean, ordea,  
zeruertza jada ez zegoen han.*

***Eguzkiloa***

*Eguna rgitu baino lehen  
Basoko eguzkiloa banatu egiten da:  
Zerura joaten da eguzkia,  
Lorea lorategira.*

*Gero, eguna argitzen du.*

*Arrats beheran,  
Berriz biltzen dira basora  
Eguzkia eta lorea,  
Lorea eta eguzkia,  
Besarkada batean,  
Besarkada betean.*

*Musu ere egiten diote elkarri,  
Ezpainetan.*

***Maitasun eskutitzak***

*Txipiroiek olatuei  
Idatzen dizkieten eskutitzak  
Maitasunezkoak dira,  
Baina tintza txinaz ez,  
Txipiroi tintaz daude idatziak.*

*Itsasoko ur zakarrak  
Zirriborratzen ditu letrak  
Eta olatuek ezin eskutitzak leitu.*

*Txipiroiak beti  
Erantzunaren zain,  
Triste,  
Kopetilun,  
Kopetabeltz.*

**Ate joka**

Gauaren ilunean,  
Kox-kox ate-joka:

- Nor da orduotan?
- Raleko ma3a  
D3 2lketan.

Gauaren ilunean,  
Kox-kox ate-joka:

- Nor da orduotan?
- 4tadako 2delapurra  
kri6luaren 2la.

***Pupuan trapua***

*Urratu zait belauna,  
Odol ttantta bat txirrist,  
Negarraren negarrez  
Muki-kandelak zintzilik.*

*Bat, bi, hiru,  
Lau eta bost*

*Bost xentimoko pupua*

*Sei, zazpi, zortzi,  
Bederatzi eta hamar*

*Hamar xentimoko trapuaz  
Sendatu zait niri.*

*Harro nago nire pupuaz  
Eta harroago nire trapuaz.*

**Bete-betea**

Ateri da negarra  
Zure begietan,  
Eurria dihardu orain,  
Bete betean.